

Bermeoko LGTBI+ udal-diagnostikoa



AURKIBIDEA

HITZAURREA.....	4
SARRERA.....	6
MARKO TEORIKOA.....	7
Esentziatik harago.....	7
Sexualitatea eta heteroaraua.....	8
Generoa eta biolentzia sinbolikoaren dinamikak: erregulazio sozialaren tresnak.....	9
LGBTI+ sigletatik harago.....	11
Siglen Aniztasuna.....	13
LGBTI+ komunitatea: herri eta hiri arteko tentsioak eta aukera eraldatzaileak.....	14
Begirada urbanozentrista eta herrien estigmatizazioa.....	14
LGBTI+ kolektiboaren erronkak herrietan.....	15
Herrietan alternatibak eraikitzea.....	15
Ondorioa: Herrien birbalorazioaren beharra.....	16
LANDA LANA ETA LAGINA.....	17
ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK.....	19
ONDORIO OROKORRAK.....	19
Bermeo: isil-isilik dago.....	19
LGBTIfobia.....	22
Gizonkeria: deserosotasuna eta armairua.....	25
Bizirauteko estrategiak.....	28
Bizirautetik, bizigarritasun kolektibora.....	31
ESPAZIO PUBLIKOA.....	35
Nola hautematen da espazio publikoa Bermeon?.....	35
Neurri posibleak:.....	37
AISIALDIA.....	38
Nola hautematen da aisialdia Bermeon?.....	39
Neurri posibleak:.....	41

HEZKUNTZA.....	42
Nola hautematen da hezkuntzaren arloa Bermeon?.....	43
Neurri posibleak:.....	45
OSASUNA.....	45
Nola hautematen da osasuna Bermeon?.....	47
Neurri posibleak:.....	48
PARTE-HARTZE POLITIKOA.....	48
Nola hautematen da udalarekin harremana eta parte-hartze politikoa Bermeon?	
.....	49
Neurri posibleak:.....	50
BIBLIOGRAFIA.....	55

HITZAURREA

Udal gobernu hau udalean sartu eta segituan hasi zen Bermeoko LGBTBI diagnostikoa eta ekintza plana egiten. Diagnostiko eta plan hori dira orain esku artean daukazun gida. Baina harago joanda, historikoki herri honek LGBTBI+ komunitatearekin izan duen zorra kentzen hasteko lehen pausua ere bada.

Udal eta herri moduan gida hau edukitzea lortu dugu eta gida honek LGBTBI politikak martxan ipini ahal izateko, komunitateari ahotsa emateko eta ikuspegi feminista batetik urteetan Bermeon ikusezina izan den sexu- eta genero-aniztasuna aitortu eta erakusten laguntzeko balio izango digu. Horregatik, orain, aurreranzko pausuak ematea tokatzen zaigu, LGBTBI politikekin arlo guztiak zipriztindu arte.

LGBTBI+ komunitateko bermeotarra izanda, zisheteroarautik kanpo haztea gure bizitzako estropadarik gaitzena izan da eta jarraitzen du izaten, batez ere, heteropatriarkatuaren olatuaren kontra arraunean ibili behar garelako. Gurea ez den errealitate baten sartzen gara eta inguratzen gaituenak gu garena ez duela erakusten ikusten dugu, eta sentimendu hori gero eta handiagoa egiten da. Itsaso zabalean tinko mantenduko gaituen inolako aingura bako batelaren moduan sentitzen gara. Antzerkia eta isiltasuna nagusitzen da gure egunerokoa bizi ahal izateko tresna moduan, eta saretzea eta komunitatea sortzea oso gaitz egiten da. Gure ahots eta ordezkartza falta ikusten dugu herrian eta bada garaia merezi dugun lekua hartzeko, bai egunerokotasunean eta baita herriko historian ere.

Egi guzti horiek argitara ekartzea, komunitatea saretzea eta transmisioa bermatzea dira emandako pausu honen helburu nagusienak. Diagnostiko honetan ahots guzti horietako batzuk baino ez daude, baina jakin badakigu beste hainbat ahots ere hor daudela, batzuk azalera irten nahian eta beste batzuk oraindik hondoan. Pertsona guzti horiei honako mezua heltzea ere bada lan honen helburua: ez zaude bakarrik, asko gara eta itsaso zabalera irten nahi baduzu, hemen gaude zure aingura izateko prest.

Amaitzeko, diagnostiko hau lehen pausua baino ez dela aldarrikatu eta hemendik aurrera LGTBI+ komunitatearekin dagoen zorra kentzeko lan egingo dugunaren konpromisoarekin gatoz: transmisio historikoa sustatu, komunitatea saretzea bermatu, diagnostikoan ikasitakoarekin ekintza planak egin eta udalaren politiketan LGTBI+ aniztasuna kontuan hartuko dugu. Horiek dira egingo ditugunak!

Eskerrik beroena diagnostiko honetan parte hartu duzuen guztioi, honek aurrera egin ahal izateko zuen laguntzagatik eta denona izango den Bermeo libre, anitz eta berdinzalearen ametsean bidelagun izateagatik.

Guztion artean lortuko dugu!

Endika Etxebarria Telleria

LGTBI+ komunitateko bermeotarra eta udaleko zinegotzia.

SARRERA

Esku artean duzun dokumentua Bermeoko LGBTI+ kolektiboaren inguruan egindako udal diagnostikoa da. Prozesua 2024ko martxoan jarri zen abian eta 2025eko martxoan amaitu da, urtebeteko ibilbidean zehar burututako lanketa kolektibo baten emaitza izanik. Herriko testuinguruan errotuta dagoen azterketa honek helburu nagusi bat izan du: sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko bizipenak, erronkak eta premiak identifikatzea, eta horietan oinarrituta politika publiko eraginkorrak diseinatzeko oinarriak eskaintzea.

Diagnostikoa hainbat herritar eta eragileren parte-hartzearekin garatu da, beren esperientziak, ikuspegiak eta proposamenak elkarbanatuz. Prozesuak tokian tokiko ahots eta bizipen anitzei lekua egitea bilatu du, ikuspegi feminista eta intersektional batetik eraikia izan dadin. Hori dela eta, dokumentuan jasotako edukiak ez dira estatistika hutsak, baizik eta egindako elkarrizketetan ateratako egunerokotasunetatik eraikitako irakurketa konpartitua.

Testuak ez du soilik Bermeoko LGBTI+ pertsonen egoeraren argazkia eskaintzen. Era berean, jasotako informazioan oinarrituta, kolektiboaren bizigarritasuna eta eskubideak bermatzeko premiazkoak diren esku-hartzeak proposatzen dira, udal politiketan aplikagarri izan daitezen. Ondorio eta gomendio hauek politika publiko inklusiboagoak bultzatzeko baliabide izan daitezke, herritar guztien berdintasuna eta askatasuna erdigunean jartzeko asmoz.

Dokumentu hau ez da amaiera bat, baizik eta abiapuntu bat. Aniztasuna aitortu eta errespetutik bizitzea helburu duen udalerri baten norabidean, lan tresna gisa baliatu nahi da, bizitza anitzen bizigarritasuna eta duintasuna bermatzeko pauso berriak elikatzeke.

MARKO TEORIKOA

ESENTZIATIK HARAGO

Identitatea norbanakoaren eta giza-taldeen ezaugarri nagusiak adierazten dituen kontzeptu konplexua da, eta izaera sozial eta kulturala duen eraikuntza bat bezala ulertu behar dugu. Gure izaera eta izatea osatzen duten elementuak barne hartzen ditu identitateak, baina gizartean egonkortasun eta onarpen soziala beharrezkoa zaizkio bere osotasunean garatzeko. Gizarte-zientzien ikuspegitik, gizakiak izaki sozialak izanik, identitatea harremanen eta interakzioen bitartez eraikitzen da. Horrela, sozializazioa prozesua giltzarri bihurtzen da identitatearen eraikuntzan, eta prozesu hori baldintza sozial zehatz batzuen baitan gertatzen da.

Identitate sozialak ez dira beti norbanakoaren erabaki kontzienteen emaitza, sozializazio-prozesu luze baten ondorio baizik. Harreman sozialetan sakontzeak erakusten digu identitatea aldakorra eta egoeraren araberakoa izan daitekeela (Azpiazu, 2017). Sozializazioa, giza taldeekin elkarreraginean ikasitako eta barneratutako praktika eta balio multzo gisa ulertu behar dugu. Gainera, ikuspegi kritiko batek adierazten du identitateak ez direla soilik norbanakoaren berezko ezaugarriak, botere-harremanek eta egitura sozialek eragiten dituzten eraikuntza sozialak baizik (Butler, 1990).

Identitatearen inguruko diskurtso esentzialista zalantzan jartzen duen ikuspegiak agerian uzten du kategoriak –hala nola gizona edo emakumea– ez direla “naturalak”, baizik eta gizartearen eta historiaren produktuak. Botere-harreman jakin batzuen ondorioz eraikitako kategoria horiek pertsonen izaera moldeatzen dute, normalean arau hegemonikoekin bat egitera bideratuz. Michel Foucaultek erakutsi bezala, botereak gorputzak eta sexualitateak kontrolatzeko dispositiboak erabiltzen ditu, eta horien bidez subjektuak sozialki egituratzen dira (Foucault, 1976).

Genero-identitateen inguruan, gizarte modernoek generoa maskulino eta femeninoaren arteko dikotomia zurrunetan oinarritu dute. Horrek heterosexualitatea arau gisa ezartzea dakar, eta, ondorioz, beste orientazio sexual eta genero-identitate batzuk baztertzen dira (Coll-Planas, 2015). Bazterketa hori bereziki nabarmena da genero-rol tradizionalekin bat ez datozen trans pertsonen edo intersexualen kasuan, haien identitateak arau sozialetatik kanpo kokatzen baitira. Gainera, ikuspegi interseksionalek adierazten dute generoaren eta sexualitatearen arteko harremanek klase, arraza eta bestelako dimentsioekin duten lotura sakonki aztertu beharra dagoela (Crenshaw, 1989).

Laburbilduz, botere-egiturek, hala nola patriarkatuak eta zisheteroarauak, biolentzia sinbolikoa erabiltzen dute identitateak arautzeko eta kontrol soziala bermatzeko. Biolentzia hau ez da soilik fisikoa, diskurtsiboa ere izan daiteke, eta gorputzetan eta praktika sozialetan materializatzen da. Kontrol sozialaren bidez eraikitako identitate-egitura hauek gizarte-orden hegemonikoak iraunarazten dituzte, kapitalismo neoliberalaren eta nazio-estatuaren logikekin estuki lotuta (Yuval-Davis, 2011).

SEXUALITATEA ETA HETEROARAU

Paul Preciadok azaldu bezala, sexualitatea ikertu zuten lehen giza zientziak medikuntzaren, psikiatriaren eta psikologiaren arloetatik abiatu ziren. Hasierako ikerketa hauek helburu argia zuten: sexualitatearen kontrola eta arautzea, patologiatzat jotako portaerak identifikatu eta "normal" bezala definitzen zirenak ezartzeko. XIX. mendearen amaieran, heterosexualitatearen eta perbertsioaren arteko bereizketa argia ezarri zen, eta instituzio mediko-legalek zientziaren diskurtsoa baliatu zuten heterosexualitatea arau nagusi gisa sendotzeko. Diskurtso horien azpian, Michel Foucaulten arabera, boterea eta ezagutza batera doaz, eta sexualitatea kontrol sozial eta botere-egitura nagusien esparru bihurtu zen (Foucault, 1976).

Adrienne Rich eta Monique Wittig feminista lesbianek ikuspegi kritikoa gehitu zioten gaiari. Haien ustez, sexualitatea ez da soilik praktika sexualen multzo bat; aitzitik, erregimen heterosexualak ezarritako egitura sozial eta politiko bat da. Rich-ek “derrigorrezko heterosexualitatea” kontzeptua sortu zuen heterosexualitatea orientazio sexual bat baino gehiago, gizarteak emakumeen gain inposatutako arau gisa ulertzeko. Arau horrek emakumeen lesbianismoa ikusezin bihurtzen du eta gizonen eta emakumeen arteko harremana aukera bakar gisa aurkezten du. Wittigek, berriz, “pentsamendu heterozuzena” deitu zion heterosexualitatea normaltzat eta arautzat hartzen duen gizarte-egitura osoari.

Sexualitatearen eta generoaren arteko erlazioa aztertzean, ikuspegi feminista modernoek adierazten dute botere-egiturek heterosexualitatea naturalizatu egiten dutela, gizartearen erregulazio tresna gisa (Butler, 1990). Era berean, kapitalismo neoliberalak sexualitatearen merkantilizazioa bultzatzen du, harremanak eta desioak kontsumo-produktu bilakatuz (Duggan, 2002).

Testuinguru honetan, ikuspegi feministak heterosexualitatearen eta arau heteronormatiboaren azpian ezkututzen den botere-egitura agerian uzten dute. Sexualitatea ez da soilik harreman intimoen esparrua, baizik eta gizartearen kontrol sozialaren zutabe nagusietako bat. Gaur egungo ikerketek, ikuspegi interseksionaletik, generoaren eta sexualitatearen inguruko botere-harremanak ulertzeko tresna berriak garatu behar dituzte, beste ardatz sozialekin (arraza, klasea, migrazioa...) duten interakzioa kontuan hartuz (Cho, Crenshaw, & McCall, 2013).

GENEROA ETA BIOLENTZIA SINBOLIKOAREN DINAMIKAK: ERREGULAZIO SOZIALAREN TRESNAK

Gizartean parte hartzeak esan nahi du norbanakoek gizarteak ezarritako kategoria eta arauekin bat egin behar dutela, baita gizarteak norbanakoak horien arabera identifikatu behar dituela ere. Hori dela eta, genero identifikaziorik gabeko

pertsona bat pentsaezina bihurtzen da gizarte-egitura hegemonikoetan. Hau bereziki nabarmena da pertsona intersexual, ez-bitarren edo generoaren rol tradizionalekin bat ez datozen trans pertsonen esperientzietan, hauek askotariko oztopo sozial eta legalak pairatzen baitituzte (Coll-Planas, 2010).

Generoaren eraikuntzak, berez, maskulinoa eta femeninoa mugatzen dituzten dikotomia zurrunetan oinarritzen da. Bi kategoria horiek bata bestearen osagarritzat hartzeak heterosexualitatea ezinbesteko egiten du generoaren arteko diferentzia mantentzeko. Horren ondorioz, homofobia eta transfobia ezinbesteko tresna bihurtzen dira sexismoa eta genero-dikotomia birproduzitzeko (Coll-Planas, 2019). Estructura sozial honek genero- eta sexu-identitate hegemonikoetatik kanpo kokatzen diren pertsonen bazterketa sustatzen du, orden "naturaletik" at geratzen direla iradokiz.

Michel Foucaulten arabera, generoa botere-dispositibo gisa ulertu behar da, sexuaren dikotomia eta horri lotutako subjektibazioak sortzen baititu. Aldi berean, dispositibo horiek emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak birproduzitzen eta erregulatzen dituzte, egitura soziohistorikoen bidez (Pujal eta Amigot, 2010). Estructura horiek gizartean orden natural eta kontrolatu bat ezartzen dute, non biolentzia, fisikoa nahiz sinbolikoa, erregulazio tresna nagusi gisa erabiltzen den.

Biolentzia sinbolikoak botere-harremanen ondorioz sortutako dominazio forma bat ordezkatzeko du. Pierre Bourdieuren ikuspegitik, biolentzia sinbolikoa hautemate- eta ekintza-eskema jakin batzuetan oinarritzen da, eta dispositibo sozialen bidez gorputzetan materializatzen da. Txikitatik jasotzen ditugun egitura sozial eta diskurtsiboek gure munduaren interpretazioa, jarduteko moduak eta balioak baldintzatzen dituzte, eta horiek guztiak baldintza sozial eta ekonomiko zehatz batzuen baitan garatzen dira. Horrela, biolentzia sinbolikoak *habitus* sozial eta kulturalak sortzen ditu, eta horien bidez, gizarte-orden egonkorra eta hierarkikoa birproduzitzen da (Bourdieu, 1988).

Biolentzia sinbolikoak norbanakoen gorputz eta praktiketan eragina du, mundua ulertzeko, sentitzeko eta aritzeko moduetan gorpuzten delarik. Mugimendutik eta janzeratik, hizkuntzara eta erabakietara, biolentzia sinbolikoak kontrol sozial patriarkalaren parte gisa jarduten du. Kontrol horrek kategoria sozial hegemonikoak indartzen ditu, eta bazterketa-prozesu sistemikoak sustatzen ditu. Adibidez, kapitalismo neoliberalaren eta estatu-nazioaren arteko harremanak erregulazio sozial horiek areagotzen ditu, migratzaile eta trans pertsonen aurkako politika eta murrizketen bidez agerian gelditzen den bezala (Yuval-Davis, 2011).

Gizarte-egitura horiek kategoria normatiboak sortzen eta birproduzitzen dituzte, generoaren eta sexu-identitatearen inguruko arauak gizartearen beste botere-egitura batzuekin, hala nola merkatuarekin eta estatuarekin, lotuz. Medeak kolektiboak nabarmendu bezala, transexualitatearen kudeaketa sistemikoak protokolo mediko eta mentaletan oinarritzen dira, eta pertsonen autodefinizioa generoaren parametro hegemonikoetara mugatzen dute. Gizarte-egitura horiek biolentzia fisiko eta sinbolikoa erabiltzen dute, kontrol patriarkal eta heteronormatiboa indartuz.

LGBTI+ SIGLETATIK HARAGO

LGBTI+ siglak erabiliko ditugu testu honetan, baina argi utzi nahi dugu esparru anitza eta konplexua dela. Izan ere, kolektibo honetako pertsona batzuek ez dute etiketa horrekin ordezkaturik sentitzen. LGBTI+ akronimoak konglomeratu heterogeneo bati egiten dio erreferentzia, eta talde horretan botere-harremanek eta hierarkiek eragina dute, haren batasuna eta homogeneotasuna erronka bihurtuz.

Trans, lesbiana, gay eta bisexualen esperientziak oso desberdinak diren arren, errealitate komun batek lotzen ditu: LGBTIfobia. Hau da, genero eta sexualitatearen ereduaren heteronormatibotik kanpo kokatzeagatik jasaten dituzten bazterketa, indarkeria eta diskriminazioa. LGBTIfobia biziaren alor guztietan islatzen da, hala nola esparru sozial, kultural, ekonomiko eta politikoetan. Diskriminazio hau patriarkatuaren sistema heterosexualak sustatzen du, heterosexualitatea arau gisa ezartzearekin batera (Coll-Planas, 2015).

Hala ere, LGBTIfobia ez da elementu isolatua, bestelako zapalkuntzen logikek zeharkatzen baitute. Klasismoa, arrazismoa, gaitasunkeria eta elitismoa dira horietako batzuk. Intersekzio horiek ulertzea ezinbestekoa da kolektiboan ematen diren hierarkizazioak eta diskriminazioak aztertzeke. LGBTIfobiaren jatorrian orientazio sexuala eta genero-identitatea egon arren, bestelako faktoreak ere erabakigarriak izan daitezke, hala nola adina, lan-egoera, egoera zibila edo trebetasun fisikoa (Hiruki Larroxa, 2021). Adibidez, egoera ezberdina izango du gizon homosexual zuri eta lan egonkorra duen batek, edo gizon homosexual migratzaile eta lan prekarioan dabilen batek. Horrek erakusten du zapalkuntza ardatz askoren arteko elkarreraginetik sortzen dela, eta pertsonen bizi-baldintzak horren arabera moldatzen direla.

Diskriminazioari buruzko ikuspegi sinplistik, berriz, errealitatea oker interpretatzeko arriskua dakarte. Askotan, komunitateko pertsona ezberdinen egoerak ikusita, pribilegio egoeran dauden pertsonak bakarrik hartzen dira kontuan, eta baztertutako beste errealitate batzuk ezkutuan gelditzen dira. Ikuspegi partzial honek LGBTI+ kolektiboaren irudikapena distortsionatu dezake, baita politika publikoen diseinuan akatsak sortu ere. Horregatik, ezinbestekoa da LGBTI+ kolektibo osoaren ikusgarritasuna bermatzea eta bazterketa prebenitzea.

Era berean, LGBTI+ etiketa eztabaidagarria izan arren, kontzeptu horrek eraikuntza sozial bat den heinean, moldagarritasuna eta eraldaketa ahalmena ditu. Komunitatearen beharretara egokituz, etiketa estrategikoki erabil daiteke

zapalkuntzaren aurkako borrokan, eta politika publikoak komunitatearen benetako beharretan oinarrituta eraikitzeko tresna eraginkorra bihurtu daiteke.

Siglen Aniztasuna

- Lesbianak, Gayak eta Bisexualak:

Sigla horiek desira heterosexualik kanpo kokatzen diren errealitateak biltzen dituzte. Lesbiana, gay eta bisexualek sexu edo genero bereko eta, bisexualen kasuan, bestelako generoko pertsonenganako desira sexual edo afektiboa sentitzen dute. Gainera, kategoria horietan pansexualak, demisexualak edo errealitate historiko eta politikoagatik marika edo bollera moduan autodefinitzen diren pertsonak ere sar daitezke.

- Transak:

Trans* terminoak sexu-genero sistemaren mugak gainditzen dituzten pertsonen esperientziak biltzen ditu. Jaiotzean ezarritako generoarekin bat ez datozen pertsonak, transexualak, transgeneroak, ez-binarioak edo trabestiak, besteak beste, genero-zurruntasuna zalantzan jartzen duten adibideak dira (Platero, 2014). Hormonazio edo sexu-berregokitze prozesuetan sartzea ez da baldintza, trans identitatea ulertzeko oinarria norberaren autodefinizioa baita.

- Intersexualak:

Intersexualitatea sexu-biologikoaren binarismoa zalantzan jartzen duten pertsonen esperientzian oinarritzen da. Jaiotzerakoan sexu biologikoa argi eta garbi kategorizaezina duten pertsonak dira, eta horrek erakusten du sexu-biologikoa ezin dela bi kategoriatan soilik banatu.

- +:

LGBTI siglei gehitzen zaien “+” honek, sexu-genero sistematik eta pentsamendu heterozuzenetik at kokatzen diren beste identitate eta praktikak biltzen ditu. Adibidez, pansexualak, asexualak, polimaitaleak edo hirukote harremanak kategoria horren parte izan daitezke.

LGBTI+ KOMUNITATEA: HERRI ETA HIRI ARTEKO TENTSIOAK ETA AUKERA ERALDATZAILEAK

Sexu aniztasunaren eta LGBTI+ komunitatearen esparruan, nabarmenak dira hirien eta herrien arteko desberdintasunak, eta bien arteko tentsioa argi antzematen da. Funtsezkoa da ulertzea tentsio horren erroak non dauden, eta zer ondorio dituen bai komunitatearen identitatean, bai espazio sozialen antolaketan.

Historikoki, hiria eta herria kontrajarritzat aurkeztu dira. Hiria aurrerapen eta modernitatearen eremua bezala irudikatu izan da, eta herria, berriz, atzerapen sozial eta ekonomikoarekin lotu izan da. Imaginario modernizatzaile hau, non hiria zibilizazioaren gailurtzat jotzen den, oso sustraitua dago, eta herrietan estigma sakonak eragin ditu. Horrek herria gizartean bigarren mailako eremu gisa kokatu du, garapen faltaren eta ikuspegi tradizionalen sinbolo moduan. Hala ere, industrializazioaren ondorioz, herrien eta hiriaren arteko lotura gero eta estuagoa bihurtu da, eta bi espazioen arteko harremana konplexuagoa da gaur egun.

Begirada urbanozentrista eta herrien estigmatizazioa

Paradigma urbano-industrialaren barnean, landa-eremuetako eta herrietako biztanleei buruzko irudikapenak estereotipoz beteta daude. Herri industrializatuak, orain dela gutxi arte, hiri handien begirada urbanozentrista jaso dute, eta estigmatizazio horrek herri txikietan bizi diren pertsonen inguruko irudi desitxuratuak sortu ditu. Begirada honek eragin zuzena izan du espazio horietan bizi diren LGBTI+

pertsonen bizipenatarako baldintzetan, non arau heterosexuala oso errotua baitago eta aniztasunarekiko irekitasuna mugatua izan daiteke.

Gainera, hiriak zein herriak oso ikuspegi androzentriko eta heterosexualetik eraiki izan dira. Espazio publikoak, hala nola plazak, tabernak edo kaleak, gizonen espazio gisa ulertu izan dira, eta horiek okupatzeko eta berrantolatzeko ahaleginak oraindik botere-harremanen bidez zeharkatuta daude. Nahiz eta publiko-pribatu dikotomia apurtzen hasia den, espazio horiek askotan arrotzak edo baztertzailak dira beste identitate batzuentzat.

LGBTI+ kolektiboaren erronkak herrietan

Herrietan arau heteronormatiboa agerikoagoa izan daiteke, eta horrek LGBTI+ pertsonen bazterketa areagotu dezake. Sarritan, herriak "itogarriak" izan daitezke pertsona askorentzat, bereziki LGBTI+ komunitatekoentzat, eta horrek "sexilioa" fenomeno eragiten du: pertsonak beren herrietatik hiri handiagoetara migratzera bultzatzen dituen prozesua, bertan anonimotasuna, aukera kultural gehiago eta askatasun handiagoa bilatzeko (La Fountain, 2005; Zuñiga, 2020).

Hala ere, sexilioak ez du beti jazarpen traumatikoan soilik oinarritzen. Zenbait kasutan, askatasun pertsonala bilatzeko edo espazio intimo eta pertsonalago bat aurkitzeko aukera gisa ere ulertu daiteke (Martinez, 2011). Herrietatik hirietarako migrazioa ez da soilik ihesaldia; espazioak birnegoziatzeko eta bizipen alternatiboak eraikitzeko nahia ere bada.

Herrietan alternatibak eraikitzea

Azken urteotan, herrietan LGBTI+ kolektiboaren presentzia eta antolakuntza handitzen ari dira. Hirien zurrumbideetatik kanpo sare alternatiboak eta espazio

kultural propioak sortzen ari dira, tokian tokiko beharrak kontuan hartuz. Adibide gisa, Nafarroako Basati Queer Fest, Izarrako Harrikada, Galiziako Agrocuir da Ulloa, edo Oñatiko San Prudentzio auzoko Queelorregi aipa daitezke. Ekimen hauek herrien inguruko estereotipoak apurtzen dituzte eta komunitate bizigarri eta jasangarriak sortzeko tresna indartsuak dira.

Tokiko politikek ere funtsezko zeregina dute. Herrietan LGBTI+ pertsonen eskubideak eta bizi-kalitatea bermatzeko, politika publikoak garatu behar dira, heteronormatibitatea erregimen politiko gisa zalantzan jarri eta aniztasunarekiko errespetua sustatuko dutenak. Institutzioek, hala nola udal gobernuek, eremu irekiago eta inklusiboagoak sortzeko baliabideak eskaini behar dituzte.

Ondorioa: Herrien birbalorazioaren beharra

Hiri eta herrien arteko tentsioak gainditzea ezinbestekoa da LGBTI+ kolektiboarentzat eta oro har gizarte osoarentzat. Hiriak LGBTI+ komunitatearen antolakuntza politikorako espazio garrantzitsuak izan diren arren, bizigarritasuna eta jasangarritasuna gero eta zailagoak dira hiri askotan. Horregatik, herriak alternatiba eraldatzaile gisa birpentsatu behar dira. Espazio horietan, ikuspegi kolektibo batetik, bizitza duinagoak eta inklusiboagoak eraikitzea posible da, bai LGBTI+ komunitatearentzat bai bestelako kolektiboentzat.

COVID-19aren pandemiak agerian utzi zuenez, lurralde osoko biztanleriaren birbanaketa eta hiri-egitatearen birpentsaketa premiazkoak dira. Horrek aukera berri bat irekitzen du herrietan eta landa-eremuetan gizarte anitzago eta jasangarriagoak eraikitzeko, non bizitzak bizigarriagoak izan daitezkeen eta LGBTI+ pertsonen eskubideek espazio erreal eta seguru bat izan dezaketen.

LANDA LANA ETA LAGINA

Diagnostikoa burutzeko beharrezko informazioa biltzeko teknika ezberdinak erabili dira prozesuan zehar. Alde batetik, herritar guztientzat bideratutako internet bidezko galdetegi bat publikatu zen (359 erantzun jaso ziren), zeinak Bermeoko LGBTI+ komunitateko kideen bizipenak jasotzeko balio izan zuen, baita gainontzeko herritarrek gaia nola ulertu, bizi eta dituzten jarreraren inguruan informazioa jasotzeko ere. Bestetik, Bermeoko hainbat LGBTI+ pertsonekin bildu eta elkarrizketa bidezko solasaldiak ere izan genituen. Bai, gaur egun herrian bizi diren eta kanpoan jaio edo bertan jaio direnekin, baita herrian jaio baina gaur egun bertan bizi ez direnekin ere. Horretaz gain, talde elkarrizketa bat ere proposatu zen eta bi pertsona animatu ziren.

Elkarrizketatuen profila hau izan da:

PROFILA	KODEA
Gizon bisexual gaztea	B01
Emakume bisexual gaztea	B02
Emakume bollera gaztea	L04
Ez-bitar queer bisexual gaztea	BQ05
Gizon bisexual gaztea	B06
Gizon gay gaztea	G07
Gizon gay gaztea	G08
Emakume Bollera heldua	L09
Emakume Bisexual Asexual Gaztea	BA10
Emakume Pansexual heldua	P11

Hauek izandako talde-eztabaidak:

TALDE-EZTABAIDA	KODEA
Bi emakume lesbiana helduak (talde elkarriketa)	L03
Herriko elkarteak	ER12
Ikastetxeak	IK13
Udaletxeko teknikariak	TK14
Gazte eragileak eta txosna batzordea	GZ15
Mugimendu Feminista	MF16

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Ondorengo lerroetan jasotako informazioa aztertu, prozesatu eta honen irakurketa politikoa egin osteko ondorioak jasotzen dira atalka elkarrizketatuak eta galdekatuak izan direnen aipuekin gurutzatuz. Bizipenetan oinarritutako ondorioen ostean, atal bakoitzerako LGBTI+ politika publikoetarako hainbat neurri proposamen jasotzen dira.

ONDORIO OROKORRAK

Bermeo: isil-isilik dago...

LGBTI+ gaien inguruan isil-isilik dagoen herria; horrela deskribatu dute parte-hartzaile askok. Nolabait, LGBTI+ pertsonak egon badaudela eta asko ikusgarriak direla, baina gaia ez dagoela kalean edota herrian orokorrean aipatu da. Honetaz gain, espazio publikoak eta herritarren egunerokotasuna sortzen dituzten plaza eta kaleak ez dira aniztasunerako irekiak bezala antzematen, ez dira jarrera hauek antzematen. Honen beste aldean, LGBTI+ pertsonen existentzia neurri batean onartua da, baina ikusgarritasun honek neurri eta baldintza konkretu batzuk ditu; diskrezioa, normatibitatea eta pribatutasuna. Hau da, “bai baina...” formularen oinarrituta dago, zeinak aniztasuna oso modu estuan onartzen duen eta askoren hitzetan, “badakigu badaudela/bagaudela, baina ez da horretaz hitz egiten” esaldia herriaren posizio kolektiboaren deskribapenean bilakatu da. Isiltasun eta estutasun honek, aurkako adierazpen espliziturik gabe, espazioaren heterosexualizazioa eta normatibitatea indartzen du, eredu normatibotik aldetzen diren adierazpenen (pertsona ez-binarioak, bikote eredu hegemonikotik kanpoko harremanak, ikusgarritasun politikoa, etabar...) onarpena lausotuz.

"Bermeo ez da erreza LGBTI pertsona batentzat. Nahiko gizarte itxixe da bermiotarra"

(B01)

"Bai egon nai apur bet bere momentuen Bermiogaz, entre comillas, hasarretute. Azkanien gauza batzutarako oso herri konplejue da, baine honetarako gauzetarako oso herri planue da."(G08)

"Bermeon ikusten dotez lesbianak inbisibilizata... Bisexualak totalmente inbisibilizata bebai. Danak dao ezkutatute ala bizitza heterua eitxen" (B01)

Galdetegi bidez egindako lanean ere ikusgaitasun mugatu hori berresten dute eta errepikatu egiten da. LGBTI+ kolektiboaren parte diren batzuek bai identitatea ikustarazten dutela baina beste askok ez eta hau testuinguruaren eta tokiaren arabera aldakorra dela diote. Hau da, %45,1a bere LGBTI+ izaera ikustarazten du baldin eta testuingurua eta lekuaren arabera Bermeon eta %12,7ak ez duela inoiz egiten esan du. Beraz, espazio publikoak ez dira nahiko seguruak edo ireki gisa identifikatzen eta ondorioz, aniztasun adierazpen horiek oraindik ere mugatuak eta diskretuak dira.

Zenbaitek ere, LGBTI+ pertsonen espazio publikoan edo aisialdian irainak edota bazterketa egoera bizi izan dituztela adierazi dute. Egoera hauek ez direla ohikoak diote ere, baina hauen aurrean erantzunik ez dela ematen azpimarratu da eta hauei erantzuna ez emateko arrazoia, askotan, erantzun oldarkorraren beldurra (%45,6) eta nola jokatu ez jakitea (%45,3) izan da errepikatuena.

Bestaldean ere badago indarkeria hau sumatzen ez duen herriaren beste parte handi bat, %44,6a. Datu honek, kontraesan handia ekartzen du, diagnostikoan jaso ditugun hainbat datu eta testigantzekin. Gainera, "Neurtu 2021" txostenaren arabera, Euskal Herrian %50ak baino gehiagok orientazio sexualagatik edo genero identitateagatik isekak edo hitz oldarkorrak ikusi dituen arren eta %13,5ek indarkeria fisikoarekin lekukoa izan dela adierazi duen arren.

"Gehixen bat irainek diez. Pertsona bat ezagutu barik esan: ese es marikon" (Galdetegia)

"Insultos gratuitos solo por pasar por delante de ciertas personas" (Galdetegia)

Honekin batera, Bermeo kanpotik datozenentzat edo kanpoan bizi eta bueltatu edo noizean behin bisitatzen dutenentzat, irekitze zantzu batzuk erakusten dituela diote, batez ere azkenengo urteetan. Zantzu horietarako, Bermeo inguruan dauden herri eta hiriekin dauden loturak eta mugimenduak klabe bat direla antzematen da eta joan etorri hauek, zein herri mugimenduetara heltzeak aldaketak ekarri dituela; jarrera anitzak, genero adierazpen ezberdinak, beldur gutxiago, etabar.

"Bermeo len oso komunikazio gatxa zen.... Gatxa zen Bermeora heltzea. Orain ez da holan, gazte bat joan daiteke Gernikara edo Bilbora asteburu pasa. Gauza guzti horrek zabaldu diralez, pentsaera be zabaldu dala herrian barruan" (G07)

Bilbora jun nitzen apur bet hau txiki geratu gaztelakon. Txiki edo azkenien, ikusi izan doten ingurue eraren batera herrixen asetuta egoten zala eta ni enitzen egoten oso asetute."
(G08)

Eta hasieran esaten genuenarekin batera, ikusgaitasuna banakakoa da, ez da kolektiboa eta honekin batera, ez dago saretze aktiborik, ez aldarrikapen publikorik eta guzti honek ahultasun politikoa eta soziala sortzen du.

"Jente gitxi mobiruten da Bermion. Kontzentrazinotan jende gitxi egoten da" (L03)

"Elkartegintza asko, baina LGBTI gairik ez: 'Bermion dauz pila bat kultur talde, pila bat kirol talde... Bain ainoiz ez da egon LGTB talde bat edo zirkulo bat..." (G08)

LGBTIfobia

Jakina denez, LGBTI+fobia ez da soilik jarrera bortitz edo irainetan agertzen den gorroto forma, askoz konplexuagoa da. Sistema oso eta egituratu baten adierazpena da, normatik aldentzen diren identitate zein sexualitateak ezabatzen, ikusezin bihurtzen edo baldintzapean onartzen dituen. Monique Wittigek adibidez, *“heterosexualitatea ez dela aukera afektibo bat, erregimen politiko bat baizik, egitura sozialak eta botere harremanak antolatzen dituen”* zioen eta testuinguru honetan azpimarratu nahi dugu fobia egun ez dela beti ukazio bat, askotan “onarpenean” ezkututzen dela, baldin eta identitate disidente horiek normaren parametro estetiko, moral, etabarrak betetzen badituzte. Lehen aipatu dugunarekin lotuta, LGBTI+fobia askotan itxurazko inklusioan txertatzen da eta “bai, baina...” logika hori hegemonikoa bihurtzen da (Aspiazu, 2021).

Gainera, testuinguru txikietan, adibidez Bermeoko herrian, logika hauek bereziki sotilak eta eraginkorrak izan daitezke. Kasu honetan, Patricia Hill Collins-ek interseksionalitatearen bidez azaldu zuen moduan, *“zapalkuntza ez da soilik identitate batek pairatzen duena, eguneroko bizitzan ehunduta dagoen sistema baten ondorioa da, zeina ikusezin bihurtzen dena egunerokotasunean”*. Beraz, espazio publikoetan ikusezintasuna gertatzen da eta honekin batera diskrezioaren premiak pizten dira eta honetan paper garrantzitsua daukan, elkar ezagutzean eman daitekeen “kontrol soziala” dago eta honekin guztiarekin; existitzea onargarria da, ikusgarritasuna ez hainbeste logika ezartzen da.

Bermeoren kasuan, ez da oasi bat Euskal Herriko zein munduko testuinguruan, hau da, permeablea da indarrean dauden logikekiko eta hor barruan kokatzen da LGBTI+fobiaren egun dagoen adierazpena. Honekin batera, ez da egunerokoan modu esplizitu edota bortitzean agertzen, baina badaude dagoenaren seinale diren beste adierazpen batzuk. Honen adibide dira, identitate disidentearen egunerokotasuna baldintzatzen dituzten adierazpenak, elkarrizketatu askok; txutxumutxuak, begiradak, komentario normalizatuak, isiltasun konplizeak, etabarrak, bezala deskribatu dituzte.

Kasu honetan, lehen esaten genuen bezala ez da aurkako adierazpen espliziturik behar, boterearen funtzionamendu sotila delako horren ezaugarriarik eraginkorrena, Foucault-ek deskribatuko lukeen bezala.

"Homofobiarik ez da esplizituki egon, baina komentarioren bat edo txantxa txarren bat egon izan da beti." (L09)

"Ez da erasorik, baina bai begiradak, komentarioak eta txutxumutxuak." (Laburtuta, hainbat elkarrizketetan ageri den ideia errepikaria)

"Kaletik ere bermeon oso babestuak sentitzen gara, baina parranda giroan jendeak galderak egiteko edo komentatzeko lotsa galtzen du. Parrandan gutxitan muxu ematen hara, beti norbaitek zerbait esan behar digu ta. Pixka bat "mono de feria" konplexua izaten dugu. Medikuan ere nahiz eta azaldu emakume bi garela, "tu marido, tu marido, tu marido"... behin da berriz." (Galdetegia)

"Eskolan, marikon deitzen mutil bateri modu despektiboan. Neska bati Mari matxo deitzen mutilak bezala janzten delako. Kuadrillan eta etxean genero neutroa erabilizidentifikatzen den bati, esatean horrela ez dutela hitz egingo." (Galdetegia)

Esanguratsua da ere, galdetegian parte hartu dutenen %55ek adierazten dutela Bermeo LGBTI+ pertsonen era aske eta duinean bizi daitezkeen herria dela baina datu honekin batera, %33ak ez dakiela adierazi du eta %11,6ak ez dela esan du. Honekin batera, lehen esan bezala, adierazpen sotilen presentzia soilik nabaritzen da eta parte hartzaileen hein handi batek, indarkeriari ez diola erantzuten edo ez dakiela nola egin adierazi du. Zalantza eta desadostasun kolektibo honek argi islatzen duena da; askorentzat normalizazioaren itxurakeria dagoela edo normalizazio itxura bat irakurtzen dela eta argi uzten du, baldintzarik gabeko bizigarritasuna ez dagoela guztiz bermatua herrian.

Hezkuntzaren esparruan ere, LGBTI+fobiaren transmisio eta erreprodukzioa antzematen da. Parte hartu dutenen hitzetan, haurtzaro eta gaztaro garaia “latz” bezala oroitzen dute: umiliazioak, irainak eta isolamendua, besteak beste, izan baitziren askoren bizi esperientzien parte. Honen beste aldean ere, gorrotozko jarrerak identifikatzen eta lantzen zituzten irakasleak ere aurkitu zituzten. Orokorrean, egun lana egiteko dagoela antzematen da baina ikasleen eremuan zein irakasleen artean, irakasleak eredu diren heinean lanketa egin beharko luketela ere esaten da.

“Institutu momentuan ondo ez. Bullying berbala, fisikorik ez da egon. Esango neuke plumofobia.”

“Irakasleen aldetik ez zen erantzunik egon.”

“Guraso batzuek ‘cosa de niños’.” (B06)

“Instituto garaiak zailak. Nik uste dot dala leku oso hostile bet.”

“Irakasle batzuk eukin duz oso onak. Eureri esker ez bazan izango igual normalizazinu prozesue askoz be luziaua izango zala.” (B02)

“Ez arazo bat. Baina bai igual, ez okitzie irakasliek sensibilidade bat ikusteko zer pasaten dan edo ikusten badau zer pasatzen dan interbenidutie edo...” (B01)

Honekin batera, pentsamendu bitarraren logikak oso presentzia handia daukala nabaria da, hau da, neska/mutil eta heterosexual/homosexual dikotomia nagusia da Bermeon. Egindako galdetegi, talde eztabaida eta elkarrizketetan ez da ia hitz egin logika horren kanpo dauden errealitate trans eta ez-bitarren inguruan eta honek ikusgarritasun ez bat ekartzen du.

“Lesbianak eta marikoiek gero ta gehixau ikusten diez. Beste gauza bat da transexualak.” (L03)

“Ez-bitartasuna: ‘jentiandako nai lesbianie, baina ni nai ez-binariue’.” (L03)

“Trans gaixen inguruan aurreiritzi txarrak daoz. Nik uste dot dala ezulertzie.” (B06)

“Emakume transak badauz, gizonik ez dot ezagutzen.” (B01)

Gizonkeria: deserosotasuna eta armairua

Zisheteropatriarkatuak hamaika mekanismo ditu araua ezarri eta honetatik ateratzen direnei zigorra ezartzeko, diziplinatzeko. Arestian aipatutako LGBTIfobia izango litzateke mekanismo eraginkor hori, baina egindako banakako elkarrizketa eta talde-elkarrizketetan agerian agertu dena, LGBTIfobia horren iturri nagusienetariko bat izan da: gizonkeria.

Gizonkeriaz gabiltzanean, matxismoaz gabiltza, gizontasun eredu patriarkalaz. Espazioak, harremanak eta izateak dominaziotik kontrolatzeko moduez gabiltza. Gizonkeria baina, identitate jakin batetik inposatzen da eta izenak dioen moduan, gizonak dira hau erabiltzen dutenak.

Elkarrizketatuen artean eta talde-elkarrizketetan, gizonkeria indarkeriaren iturri bezala ikusten dute eta gizontasun eredu hori jartzen dute adibidez espazioak deseroso bizitzea (jaietan txosnan zentroa hartzen esaterako) eta gainera jarrera horiek nolabait baloratzen direla ere aipatu da. Honek agerian uzten du, herriko gizonentzako gizontasunaren inguruan hausnartzeko, harremanak eraikitze eta izateko eredu patriarkaletik urruntzeko tresnak eurenganatzeko eta parekidetasunerantz jartzeko espazioak beharrezkoak direla Bermeon.

"Hau da herri bat nun macho alfabak eitzen diraz baloratu" (ER12)

"matxitoarena egiten" (TK14)

"Matxirulismue a tope. Mutilen artien batezbe. Horrek bai emuten dust errespetue. Nerabien artien batezbe. Nire etxe ingurutik nerabe asko egoten die egoten eta : 'maricon! Maricon! Que eres un maricon!' hori entzuten da. Ta ya ez da bakarrik eurekaz kurtzetie bebai, kurtzetie eta segun zelan zauzen jantzitze edo segun nose que edo segun no se cuantos... hori ya... nik uste ya intrinseco dauketela". "niri jeneraten doztene hori da,

inkomodidadie, batzutan ikara apurtxo bet... bueno ez da ikarie, bañe da... ariñau pasako nai” (G08)

Gainera, gizonkeria gehien bat gizonen arteko norgehiagokan oinarritutako harremanean indartzen da eta anaitasunean babestu kanpora begira. Horrez gain, homofobia ere gizonkeriaren oinarrian dago eta heterosexualitatea harrokeriaz eta handikeriaz erakustez gain, hortik ateratzen den gizon oro zapaltzen da eta gizonen arteko afektu erakustaldiak (gehien bat fisikoak eta emozionalak) errefusatu eta erreprimitzen dira. Honek gizonen artean egon daitezkeen gizonezko gay edo maritxuak armarizatzea edota gizon taldeak deseroso eta ez-seguru bizitzea dakar eta gizonezko gay edo maritxu askok ez dute lagun gizonezko heterosexualik izaten. Honen harira, talde-elkarrizketa gehienetan eta hainbat elkarrizketetan komentatu da gizonezko gay edo maritxuek zailagoa daukatela beraien izaera libreki adierazteko, hain zuzen ere aurretik aipatu den horregatik eta babeseko tokia aurkitzea zailagoa zaielako. Aldi berean, gizon gay eta maritxuak atomizatuago daudela ondorioztatuta. Emakumeek aldiz, mugimendu feministaren laguntzaz, beraien sexualitatea zalantzan jartzeko eta elkar-babestu eta zaintzeko toki gehiago izan dituzte eta dauzkate gaur egun.

“Egon die beti emakume lesbianak edo bueno egon die beti Bermion eta beti oso ondo ikuste eta ez dotez edo ez dot perzibidu nik behintzet euren kontra ezer..uste dot mutiletan bai izan dala beti gatxaue hemen, bueno gizartien orokorrian puede ser ez? Baina bueno Bermion bizi izan dotena beti izan da, mutilek igual bai izan dia seinalatuagoek eta neskan kasuen izan dienak izan da beti jente oso maitatue herrixen. Baina bai pentsateot nire inguruen eta nire adine tarteko jentie mutilek bai pasa dotela askoz txarrau gu pasa ahal izan doguna edo pasa ahal doguna baino” Zergatik? “neska bat neska bategaz dagoenien hor mutilentzat ez dago, ez dakitx peldañorik jeisterik esatealez, mutil bat igual danien amaneraguague deitzen dotxien moduen edo mutilekaz ya hor como que hostias, eres más débil eta ez dot sentiten gu ikusten gaitxuienik más debil eta mutilen kasuan uste dut lastre hori emoten dotziela, cómo ya no eres tan hombre” (L09)

"eske pentsetan dot gehixau pasaten jakola gizonari no? Gay izetiagatik 'maricon! Nose que, no se cual'. Lesbianei igual gitxiau pasaten jazku hori. Eztakit andrak gure tartien garizealkuan igual... asko gehixau protejiten garelako lagunek andrak izanda, gizonak gizonen tartien baino" (L03)

Gizonkeria asko ematen den toki bat arrantza mundua dela aipatu da eta horretan orain urte batzuk arrantza munduko gizon homosexual bat psikiatrikoan ingresatua izan zela aipatu da egindako talde eztabaida eta elkarrizketetan eta bere homosexualitateak bere osasun mentalean edota diagnostikoan eragina izango zuela pentsatu daiteke, kontutan izanda zer izan daitekeen itsasoan hilabeteen ematea testuinguru homofobo baten.

"gu bizi gara herri baten itsasua daona, leku oso matxistie (arrantza munduari erreferentzia eginez), eta nik ezagututen dot gizon homosexuala eta itsasun inok ez daki homosexula dana ze ikaria dauko esatie". (L03)

Azkenik, Bermeon txokoetan ematen diren gizonkeria eta misoginia dinamikak ere arazo bezala bizi dira elkarrizketatuen aldetik eta nahiz eta bere momentuan Udalak saiakeraren bat egin bazuen ere, oraindik emakumeentzako eta LGBTI+ pertsonentzako espazio deseroso bezala bizi dira.

"lanketa egin behar da herriko txokoekaz" (L09)

"Txokoena. Denak dira gizonezkoenak, orain hasi dira mistoak egiten eta oso gutxi...". "Eta dau bat dela emakumeena, eta denek esaten didate 'baina badau bat emakumeena' baina klaro, piska bat, bada gune bat... ez da emakumeena, da amak eta umeak eta batzutan haurren aisialdirako erabili izan da eta... ez da nik nahiko nukeena, nahiko nuke espazio bat anitzagoa" (L04)

"Bermeoko txokoak oraindik dira tradizionalak. Bale, legeak esanda aldatu dabez klausula guztiak, orduan badago bide bat zu emakume izanda aurkezteko zure burua bazkide modura. Baina badaude beste bide batzuk, zu aurkezten bazara izateko bazkide, bazkide guztiak zure eskaera ezeztatzeke, mayoriarekin ba ez." (G07)

Ondorioz, Bermeon gizontasunaren inguruan lanketa bat egitearen beharra ikusten da aipatutako guztiagatik, gizonek beraien gizontasunaren inguruan hausnartu, dituzten jarrerak errebisatu eta ardura hartzeko.

Bizirauteko estrategiak

Bizi irauteko estrategiak ez dira homogeneousak izaten, egoerak, pertsonaren bizipenak, testuinguruak... asko baldintzatzen dituzte forma bat edo beste hartzea.

Sexilioa, adibidez, LGBTI+ pertsonen kasuan, ez da beti borondatezko erabakia izaten eta egunerokotasunean pairatzen diren presio, ikusgarritasun eza, kontrola, etabar askoren ondorioz hartzen den estrategia da. Heteronormatibitatearen indarra oso nabaria den testuinguruetan; herri txikietan edo hirietako auzo txikietan adibidez, norbere identitatea modu osoan garatzeko edota bizitzako aukerarik ezean, espazio berri bat bilatzen da bai modu fisikoan zein sinbolikoan non pertsona seguruago eta askeago sentitu daitekeen. Modu honetan, sexilioak askotan babes eremu bihurtzen dira, epe luze, ertain, motzerako edo betiko, baina aldi berean, deskonexio, errua, isolamendua edo mina ere ekar ditzakete.

Esan bezala, sexilioa ez da forma konkretu eta bakarrekoa, mota asko daude; aisialdirako edo harreman afektibo eta sexualetarako hirietara joatekoak, badaude ere aldi baterakoak, epe motzekoak direnak eta badaude ere behin betikoak, non ez den itzulera egiten edo ez den planteatzen. Nabarmentzekoa da ere, itzultzeko aukera ez dagoela soilik LGBTI+ pertsona horren esku edo bere nahian, hau da, baldintza

kolektiboek (aipatutako babes sareak, ikusgarritasuna, memoria partekatua, erreferenteak) ahalbidetzen dute buelta bat benetan bizigarria izatea edo bizigarria bihurtzea.

Ondorioz, sexilioaz hitz egiten dugunean ez dugu soilik joan den horretaz hitz egin behar, baizik eta inguruari erreparatu behar diogu eta itzuli nahi duenarentzat edo hemen bizi direnarentzat zer eraikitzen ari garen eta nola galdetzea ere bada. Eta honekin batera, azkenaldian herritik sexiliatu diren eta hortik eta urte batzuetara buelta egiten duten gero eta kide gehiago ere topatu ditugu. Komunitate txikiek, kontrol sozial handi horrekin batera, intimitatea, babesa, sarea eta gertutasuna eskaini dezaketelako ere.

Bermeoko LGBTI+ pertsonen hitzetan eta bizi esperientzietan era askotariko estrategia pertsonal zein kolektiboak garatu dituzte beren bizitza bizigarria egiteko. Arestian deskribatu dugun sexilioa ohikoa dela esan genezake; Bermeotik alde egin eta hiri handietara (gehien bat Bilbo) joateko ohitura badago, askatasun handiago eta ikusgarritasunerako baldintza egokiagoak bilatu nahian.

“Bilbora jun nitzen apur bet hau txiki geratu gaztelakon... azkenien, ikusi izan doten ingurue eraren batera herrixen asetuta egoten zala eta ni enitzen egoten oso asetute.”
(G08)

“hiritara eta anonimotasun hortara pasatzea guztiz normala da ez badaukazu espazio eroso bat ez?” (L04)

“nire kasuen bai eukin dot beharrizena kanpora urteteko eta kanpuen bizipen batzuk eukitzie; neure burue alduntzie edo hori (segurtasuna) bizi ahal izateko herri barruen”
(B01)

“Orain ez da holan, gazte bat joan daiteke Gernikara edo Bilbora asteburu pasa... pentsaera be zabaldu dala herrian barruan” (G07)

Hala ere, badira normatibitatearen baldintzetarako moldatzeko estrategiak hautatzen dituztenak; hala nola, adierazpenak modu diskretuan edo moldatuta egiten, ingurune hurbilean saretuta mantentzen edo identitatearen adierazgarri batzuk ezkutuan gordetzen.

"Zure inguruen bazarelez apurtxo bat libriau edo... bere momentuen ba geratzen zara zure inguruen."(G08)

"Nik zortea izan det eta espazio oso eroso da eta LGBTI komunitateko lagun-taldea daukagu, orduan, super eroso da. Bueno, danak neskak, danak bollerak gera baita ere..."(L04)

"Ez naiz agertzen herrian, baina nire lagunartean dena da natural. Ez dut herriko jendearekin konfiantzarik." (Galdetegia)

Bizirauteko estrategia hauek, testuinguruak baldintzatuta daude eta honek inposatzen duen egoerei erantzun gisa ulertu behar dira eta inolaz ere, hautu libre modura. Hau da, batzuek prozesu hauen indibidualizazio bat egiten dute, norbanakoaren kontu bat izango balitz bezala edo ere ahalduz pertsonal modura eta horrek egiten duena da, egiturazko arazoa eta honek duen pisua eta erantzunkidetasun kolektiboaren beharra ezkutatu.

"Pertsona batzuk bai behar dabe giro horretatik urten eta beste era batera bizitzeko edo bizitzeko eurek nahi daben bezala"
(G07)

Esan bezala, sexilioak, ez du zertan betiko distantzia hartze bat esan nahi, gainera parte hartzaileen artean aniztasuna dago eta momentu honetan Bermeon bizi ez diren batzuek itzultzeko aukera edo gogoia adierazi dute ere, beti ere, baldintza

sozialak aldatzen badira. Gainera, bueltatzeko aukera, askotan ikusgarritasuna kolektibizatzearekin eta komunitate aktiboa izatearekin lotuta dago.

“Ahal dodanean bueltatzen naz. Nire lagunak gehienak han dauz, jarraitzen dabe berberak izaten, txikitako lagunak”
(G07)

“bueltan etorrikeran, berdin badauen be, nik uste dot adin gauza bat be badauela, zeozelan rekonsilietan jun nai Bermioko bizixegaz, herrixegaz...”(G08)

Honekin batera, elkarriketa batzuetan, ikusgarritasunean bizitzeko edo ikusgarria izateko beldur handiena bezala etxe barruko egitura aipatu da eta ez kalea. Familiaren onarpenaren beharra azpimarratu dute. Kasu askotan, etxea espazio zaindu bat izan behar da, horrela izan ezean isiltasunean edo ezkutuan bizi direlako.

“Uste dot familixa dala elementu handi bet.”(B02)

“Herrixik kanpora bazuzen da, ez zulako nahi zure etxeko kideak jakitzea zure egoera”
(P11)

“Ni bizi izan naiz isilik urte askoz, eta etxean ez naiz gai izan sekula esateko nori maite dudan. Hori da nire beldur handiena, ez kalean esatea, etxean aitortzea.” (Galdetegia)

Bizirautetik, bizigarritasun kolektibora

Saretzea, ez da soilik lagun edo laguntza sare bat edukitzea; politika ere bada eta bizirautearen logikatik zubia eraikitzen du bizigarritasun kolektibora. Saretzea, hor tartean, ematen den praktika kolektiboa litzateke, komunitatea ez delako modu automatikoan sortzen. LGBTI+ pertsonen saretzea, sistemak alde batera utzi dituen

gorputz eta identitateek elkar ezagutzeko, aurkitzeko eta elkarren arteko babesa, adierazpen kolektiboa eta ekintza politikoa eraikitzeko baliagarria den tresna da.

Saretzeak, espazio zainduak sortzea, ahalduntze prozesuen partekatzea eta ikusgarritasunak kolektibizatzea dakarzki, besteak beste eta honekin batera memoria partekatu bat eraikitzea. Honetaz gain, estrategia honek biziraupenerako estrategietatik harago doa eta diskurtso hegemonikoak hausteko zein errealitate berriak irudikatzeko oinarri politikoa da. Gainera, sistemaren arrakaletatik sartu eta hutsuneei aurre egiteko autobabes eta zaintza kolektiborako tresnak ere eskaintzen ditu.

Orokorrean ez da LGBTI+ komunitatearen saretze aktiborik antzematen eta horrek hutsune nahiko nabaria sortzen du bizirauteko estrategien atalean azaldu ditugun babesa, ikusgarritasun eta transmisioan. Gainera, saretzeak antolaketa kolektibo sakon bat eskatzen du, kasu honetan, herrian dauden eragile zein pertsonena. Baina, nork jarriko du martxan? Zeinek hartuko du lehen pausoa? Hemen bi aldeak sumatu ditugu. LGBTI+ pertsonen hitzetan, beraiek saretu eta martxan jarri behar direla badakite, baina zailtasunak daude eta aldi berean udalaren inplikazioa eta ardura eskatzen dute. Beste aldean, udalean lanean daudenen partetik, edozer egin baino lehen LGBTI+ pertsonen saretze eta aktibazioaren zain daude. Beraz, saretzearen beharra ikusten da, baina zubi lanak nola egin adosteke geratzen da.

“Bermion dauz pila bat kultur talde, pila bat kirol talde... gauza asko dauz. Bain ainoiz ez da egon LGTB talde bat edo zirkulo bat...”

(G08)

“Mugimendu feministak hartu du nolabait, adibidez LGBTIfobia salatzeke ardura”

(G08)

Hala ere, galdetegietan, parte hartu dutenen %86ak LGBTI+ kolektiboko jendea ezagutzen duela adierazi du, beraz, komunitatean behintzat existentzia bat aitortua

dagoela antzeman daiteke, naiz eta ez izan sare antolatu edo egituratu bat izan edo horrela adierazi.

Honekin batera, ikusgarriak diren emakume lesbianen figurak agertu dira, baina ez aktibismo politikoan aritu direlako, baizik eta banakako modura presentzia izan dutelako herrian. Aipatu dira udal-langile edo publikora lan egiten duten lesbianak egon badaudela. Honek, erreferentetzat islatzen ditu herrian, modu irekian bizi izan direlako lesbiana bezala, baina ez erreferente eraldatzaile modura, hau da, ez dira egindako eraldaketa edo aktibismoagatik erreferente izan.

“Egon die beti emakume lesbianak edo bueno egon die beti Bermion eta beti oso ondo ikuste eta ez dotez edo ez dot perzibidu nik behintzet euren kontra ezer.” (L09)

“Bermion ikusten dotez lesbianak inbisibilizata. Gero badauz igual emakume lesbianak, nagusixauak diranan talde baten moduan, ez? Baina gaztiaeuk... oso gitxi, bisible behintzet...”(B01)

“Ikusten dira batzuk, baina ez dago talde edo espazio bat non elkartu eta ideiak partekatu. Banaka bizitzen dugu bakoitzak gure modura” (Galdetegia)

Erreferentzialtasunarekin jarraituz, memorian eta aktibismoaren historian, Josu Unanueren pertsona aipatzen da. Ez da LGBTI+ borrokan erreferente izateagatik gogoratzen baina bai herrian egindako lanagatik eta batez ere, HIESaren aurkako borrokan egindako lanagatik da oroitua eta miretsia. Josuk Txo Hiesa elkarte sortu zuen Bermeon, HIESarekin lotutako estigmak apurtzea eta GIBdun pertsonentzako babesa zein informazioa eskaintzeko sortua izan zena. Asko komentatu ez zen arren, bere lana, inplizituki ere, LGBTI+ komunitatearen osasunaren aldekoa izan zen, sentsibilizazioan aritu zen. Beraz, bere figura oso aipatua izan da Bermeoko aktibismoaren historian eta herriko memoria kolektiboan arlo sozial eta politikoan erreferente gisa mantentzen da.

"Ezinddot ez aipatu Josu Unanue dana Bermeoko militante politiko oso historiko bat. Holako referentia eukin dauz Bermiok" (B02)

"Egon da Josu Unanue... eta beti izan da oso errespetatue eta oso maitatue" (L09)

"Josu Unanue bardin, beste gai batzuetan ere izan da erreferente."

(L09)

Erreferenteak: Josu Unanue"

(G08)

Josuren kasuan, transmisio bat badago baina orokorrean eten egiten da eta belaunaldi berriek sarri ez dituzte pertsona erreferenteak ezagutzen eta ez dago transmisiorik. Adibide gisa, talde elkarrizketa batzuetan, historia zahar batzuk atera dira (Bermeotik alde egin zuen trabesti bat esaterako) eta gazteei galdetzerakoan, gehienek ez zekiten ezer. Honetan, herri moduan memoria ariketa bate egitearen beharra agerian geratzen da.

Ez dago erreferente bisexualik."

(B01)

"Nik uste dot ezetz... Egon dira pertsona LGTBak udal mailan, udaleko gobernuan baina ez dabenak erakutsi euren izaera inoiz..."

(G07)

Guzti honekin, esan genezake saretze faltak komunitatearen memoria lausotzen duela eta belaunaldien arteko zubiak eraikitze aukera urritzen dituela. Ondoko herrietan adibidez, Gernika-Luma bezalako kolektiboak sortu dira eta saretzeko prozesu hauek martxan daude. Beraz, Bermeon oraindik lehen harria botatzeko prest dagoen norbaiten beharra dago?

Bermeon ez dago ezer, eta Gernikan badauz kolektibo batzuk... eta igual hara joan zaitezke, baina herrian bertan ez dauz gauzak montautu"

(B06)

ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publikoa herritarren arteko elkarbizitzarako eszenatoki nagusietako bat da: plaza, kale, parke eta bestelako gune komunak dira eguneroko bizitzako harremanak ehuntzen diren tokia. Herri baten izaera kolektiboa eraikitzen eta adierazten den lekua da, eta, aldi berean, botere-harremanek zeharkatzen duten espazioa. Nor agertzen den, nola mugitzen den eta nor sentitzen den seguru espazio horietan, ez da neutroa: identitatearen, generoaren, adinaren edo sexu-orientazioaren arabera izan daiteke.

LGBTI+ pertsonen ikusgarritasunerako eta bizigarritasunerako funtsezkoa da espazio publikoa inklusiboa izatea. Kalean libre eta beldurrik gabe egoteko aukera izateak eragin zuzena du pertsona hauen ongizatean, harreman sareetan eta herriaren aniztasunarekiko jarreran. Horregatik, espazio publikoaren antolaketak, erabilerak eta pertzepzioek paper garrantzitsua jokatzen dute LGBTI+ kolektiboaren eskubideak eta eguneroko esperientziak aztertzerakoan.

Nola hautematen da espazio publikoa Bermeen?

Orokorrean espazio publikoa ez da arrisku handiko leku bezala identifikatu. Hala ere, ikusgarritasunaren inguruan galdetu denean, ez da hain atsegin bezala identifikatu testuinguruaren arabera. %42,5ak bere LGBTI+ izaera lasaitasunez ageri du, %45,2ak baldin eta testuingurua eta lekuaren arabera eta %12,7ak ez duela inoiz egiten esan du. Honek erakusten digu, nahiz eta orokorrean espazio publikoa gehiengoak eroso bizi duen, badaudela tokiak non LGBTI+ pertsonak ez diren eroso sentitzen.

(Bermeo irekia den galdetuta) "nik pentsetan dot baietz. Beti be kontextuaren arabera.

Inkomodo sentiru izan nai" (G08)

Honekin batera, *Bermeon, LGBTI+ izateagatik zein espazioetan sumatzen dituzten, bazterketak, isekak, irainak edo bestelako indarkeriak* galdetu dugunean txanponaren bi aldeak dira nabariak. Alde batetik, %44ak ez du indarkeriarik sumatzen inolako espazioetan, bai aldiz %56ak. Indarkeria sumatzen duen %56 horretatik, %44,3ak espazio publikoa ematen dela erantzun du.

"Terrazan zauz zeozer hartzen... onduen dekozun konbertzaziñuek mingarriak dira oso"
(L09)

Espazio publikoan ematen diren indarkerien inguruan, aurreko atalean azaldu den moduan, ez da indarkeri zuzen eta gordinik (jipoiak, bultzakadak...) nabaritzen. Sotiltasunean mugitzen diren komentario, begirada edota giro desatseginen inguruan hitz-egin dute gehien bat elkarrizketatuek eta hori normalizatua dagoela.

"jendearentzat hori da komentarixo bat sin mas, hori ez da indarkerixie. Normalizata daon omentaidxo bat da. Eguneroko komentaidxuek oso normalizeta dauz." (B01)

"jendia berbetan. Ez dau esaten ezer zuri edo berari, baina ikusten dozu begira zuri" (B06)

Bestalde, kalean edota espazio publikoan oro har, ez da LGBTI+ sinbolorik edota aldarririk ikusten, ekainaren 28an *"Sexu askapenerako nazioarteko egunaren edo LGBTI+ harrotasun egunaren"* harira udaletxean jarri izan den banderaz gain.

Ondorioz, aurreko atalean aipatu den bezala, Bermeon espazio publikoa orokorrean ez da espazio oldarkor bezala bizi, baina aldi berean LGBTI+ errealitateak eta sinbologia ez da ikusgarria (beraien LGBTI+ izaera ikusgarri egiten duten herritarretatik aparte) eta honek, nolabait LGBTI+ errealitateak eta pertsonak ezkutuko edo ez-posible izatearen ideia transmititu dezake. Hau da, ikusten edo izendatzen ez dena ez dela existitzen ideia transmititu daiteke, nolabait espazio publikoa heterosexualizatzailea bihurtuz. Horrez gain, badaude testuinguruak

zeintzuk espazio deserosoak izan daitezkeen eta hainbat komentario eta jarrera sotil normalizatuta daudela ikusten da.

Galdetegietatik jasotakoak:

“Gehixen bat irainek diez. Pertsona bat ezagutu barik esan: ese es marikon”

“Kaletik ere bermeen oso babestuak sentitzen gara, baina parranda giroan jendeak galderak egiteko edo komentatzeko lotsa galtzen du. Parrandan gutxitan muxu ematen hara, beti norbaitek zerbait esan behar digu ta. Pixka bat "mono de feria" konplexua izaten dugu. Medikuan ere nahiz eta azaldu emakume bi garela, "tu marido, tu marido, tu marido"... behin da berriz.”

“Insultos gratuitos solo por pasar por delante de ciertas personas”

“Eskolan, marikon deitzen mutil bateri modu despektiboan. Neska bati Mari matxo deitzen mutilak bezala janzten delako. Kuadrillan eta etxean genero neutroa erabiliz identifikatzen den bati, esatean horrela ez dutela hitz egingo.”

Neurri posibleak:

1. LGBTI+fobia zer den ohartarazi eta jakinaraziko duen kanpaina instituzional bat egitea; besteak beste, ongi etorriak ez diren jarrerak ikusaraziko ditu. Kanpaina aurrera eramateko, kontuan izango da LGBTI+ herritarren iritzia, eta haien kolaborazioa sustatuko da.
2. LGBTI+ protokoloa eratzea. Eskuragarri egongo da eraikin publikoetan, komertzioetan, tabernetan, aisialdi guneetan eta halako tokietan.
3. Herriko idiosinkrasiak bultzatzen dituen indarkeriazko dinamikak identifikatu eta lantzea.
4. LGBTI+ protokoloari lotuta, formazio eta sentsibilizazio saioak eskaintzea herriko eragileei: elkarteak, tabernak, komertzioak...

5. LGBTI+ herritarrei ongietorria ematen dieten kartelak edota pegatinak herriko komertzioetan jartzea.
6. Herri hezitzailearen ideiatik, nerabe eta gazteekin sexu-genero aniztasuna lantzea.
7. Harrotasun eguna ospatzea; aldeez aurretik, herritarrek parte hartzeko komunikazio kanpaina diseinatzea.
8. Egun berezietan banderak jartzea udaletxeko balkoian.
9. Herritar berrientzako harrera protokoloa diseinatzean, LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.
10. Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoak herriko langile publiko guztientzat.
11. LGBTI+ pertsonak artatzeko derrigorrezkoa eta denboran egonkorra izango den barne-protokoloa eratzea, polizia-etxean bertan edota kaleko esku-hartzeetan erabiltzeko.
12. Hirigintzari loturiko ekintza zehatzak burutzea, leku ez seguru gisa identifikatu diren tokietan arrisku hauek gutxitu edo desagerraraziko dituztenak.

AISIALDIA

Aisialdiaren esparrua funtsezkoa da herritar guztientzat harremanak garatzeko, norberaren burua adierazteko eta komunitatearen parte sentitzeko. Gazteentzat zein helduentzat, aisialdiak —kirola, kultura, jaiak, taberna eta lokalak, gaztelekuak edo bestelako ekimen sozialak barne hartuta— aukera ematen du

erlaxatzeko eta besteekin konektatzeko. Hala ere, espazio hauek ez dira beti errespetuzkoak edo seguruak izaten aniztasun sexuala adierazten dutenentzat.

LGBTI+ pertsonen ikusgarritasunerako eta parte-hartze aktiborako, aisialdia eremu giltzarria da. Bazterketa, irainak edo ikusgaitasunaren beldurra agertzen direnean, kolektiboko kide askok espazio horiek ekidin edo mugatu egiten dituzte. Horrek ondorio zuzena du haien gizarteratzean eta ongizatean. Hori dela eta, aisialdi-esparruak ere aztergai dira LGBTI+ pertsonen herrian bizi dituzten eguneroko esperientziak eta eskubideen erabilera ulertzeko.

Nola hautematen da aisialdia Bermeen?

Orokorrean, parte-hartzaileen gehiengoarentzat aisialdia esperientzia atsegin bezala deskribatu ditu baina heterozentrismoa nagusi da bizipen horietan. Hau da, aisialdia ongi, dibertigarri eta gozagarri bizi da baina ez du erabateko askatasuna duen espazioaren itxura hartzen. Nolabait, pentsamendu heterozuzenetik urruntzen den eskaintza eza aipatzen da, nahiz eta udaletik adibidez Zinegoak (Bilboko LGBTI+ zinemaldia) ekarri. Ondorioz, LGBTI+ pertsonen askotan aisialdiaz gozatzeko mugitu egiten dira lekuz, herritik kanpo jo behar izaten dute. Orokorrean ondoko herri edo hirietara (Bilbo esaterako).

“ez da bardine 17.000 pertsonako herri baten bizitzie edo Bilbo moduko hiri baten bizitzie, hor topakozun jentie ba... aukera gehixau daukazuz jende ezberdine topateko” (B01)

“egixe da neuk bebai... askotan Bilbora eitxen dotela, beragaz egoten eta beran entornuagaz, nire entornu be bilakatu da. Orduen niri be norrek apur bat haixie emoten dost” (G08)

Jaiak dira agian aisialdiari dagokionez gehien aipatu izan diren espazioak, zeintzuk nahiz eta orokorrean espazio eroso bezala adierazi, egoera deserosoenak eta indarkeriazkoak aspektu honetan ikusi dira.

"Eurek dauzenien eiren bikotiaz parrandan moxu bat emoten dotzie arazo barik, nik ingurure beiten dot, osea leo la situación" (L09)

"ligaterako orduen edo edonogaz enrolletarako momentuen, inkomodidadea bai, askotan" (G08)

"Bikotiegaz mosu bat emoten ddantzan ta ebai barik haulan tipua onduen, beitu ta 'es que me estais poniendo...'" (L03)

"taldetxo bat ibiltzen gea bollerak, batzuk beste batzuk baino nabarmenagoak, eta bai tokatu zait gau giroan ikustea edo sentitzea baino, lagun batek esatea 'ez nau eroso' hau eta beste, begiradak daude edo ez dakit zer, eta igual lekuz aldatu edo frente egin diogu edo danadalakoa... baina oso isilpekoa" (L04)

Jai giroan txosna izan da aipatu den espaziorik erosoena LGBTI+ pertsonentzat (ez denentzat), baina aldi berean askotan gizonkeria zentroan izaten denean, espazioa ez-seguru bezala nabaritzen da.

"Bermeoko jaietan ez dago LGBTI+ erribindikaziorik edo 'ortzadar espaziorik' agresioak salatzeko" (BQ05)

Gizonkeriaren inguruan "jai giruen presentzia asko hartzen daue, nahiz eta antolakuntzan ez egon". Honen ondorioen inguruan "pertsona bat sentiruko da kaibirute. Ez da babesleku bat inorentzat, ba imajinatu kolektiboko batentzat" (GZ15)

"Txosna bastante seguru eta dibertigarria da. Hor badago ikuspegia nahiko argiki markatua" (G07)

Indarkeri kasurik egotean jendearen erantzunaren inguruan "jaixetan egonez gero jendian erantzuna egongo zan. Txosnagunien behintzat bai" (B06)

Elkartegintzan edo herri mugimenduan LGBTI+ kolektibo antolaturik ez egotea ere izan daiteke nolabait aisialdian eskaintza LGBTI+ komunitatearentzat eroso edo deigarria ez izatearen beste arrazoietariko bat.

"Bermion dauz pila bat kultur talde, pila bat kirol talde... gauza asko dauz. Baina inoiz ez da egon LGTB talde bat edo zirkulo bat..." (G08)

"esango nuke badagoela horrelako jendea (ez-bitartarrak eta bisexualak), baina ez da inon elkartzen edo antolatzen" (BQ05)

Kirol munduan ere agertu dira hobetzekoak eta futbol eta arraun mundua gizonkeriaz beteta, ondorioz LGBTIfobiaz, bezala adierazi da. Ez soilik elkarrizketatuen aldetik, baita eragileen talde-eztabaidan ere. Bestetik, jada existitzen ez den emakumeen futbol taldea lesbiana eta bisexualentzat espazio seguru eta "sinergia" toki bezala bizi izan da.

"institutu momentuen egon nitzen arraunien eta hor zan ya gehixau (plumofobia)" (B06)

"Futbol taldiari adibidez 'Tijeretas futbol club' deitxutentzien emakumien futbol taldiari. Hor bai sortzen zirian beste sinergixa batzuk, beste toki baten ez zienak sortzen" (B02)

Galdetegietatik jasotakoak:

"Espazio seguruaren eta pertsona erreferenteen falta somatzen dugu."

"Tener una asociación y un punto de encuentro puede ayudar mucho así como visibilizar al colectivo."

Neurri posibleak:

13. Festetan ikusgaitasunarekin lotutako kanpaina espezifikoak abiatzea.

14. LGBTI+ pertsonentzako puntu koloredunak ezartzea festa garaietan, puntu moreek bezala funtzionatzen dutenak.

15. Bermeoko aisialdia antolatzean LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.
16. Zinema ziklo LGBTI+ bat antolatzen jarraitzea (Zinegoak, adibidez).
17. Udal instalazioetako komun eta aldagela ez-bitarrak sortu, egokitu eta sozializatzea.
18. Kirol-elkarteetan prestakuntza eskaintzea eta kirolean LGBTIfobiaren aurkako nazioarteko egunean (otsailak 19) kirol-elkarteekin batera kanpaina bat diseinatzea.
19. Emakumeen futbol taldea berreskuratzeko ahaleginak egitea futbol elkartearekin batera.
20. Gizonentzako despatriarkalizazio prozesuak eskaintzea

HEZKUNTZA

Hezkuntza formala (hau da, eskolak eta institutuak) funtsezko eremua da haur eta gazteen sozializazioan, balioen transmisioan eta identitatearen eraikuntzan. Irakasleek, ikaskideek eta hezkuntza-komunitateak osatzen duten sareak eragin handia du pertsonen autoestimuan, segurtasunean eta norberaren identitatea modu aske eta seguruan adierazteko aukeran. Hala ere, hezkuntza-eremua ez da beti espazio eroso eta babesgarria LGBTI+ pertsonentzat.

Ikasle LGBTI+ askok bizitzen dituzte isekak, umiliazioak edo ikusiezintasuna, eta irakasleek edo ikastetxeek ez dute beti tresnarik egoera horiei aurre egiteko. Horrek identitatearen ukapena, autozentsura eta ikasteko motibazioaren galera eragin ditzake. Hezkuntza formala, beraz, ezinbesteko esparrua da LGBTI+ ikasleen

eskubideak eta ongizatea bermatzeko, ikusgarritasuna eta errespetua sustatuko dituen hezkuntza inklusiboaren alde lan eginez.

Nola hautematen da hezkuntzaren arloa Bermeen?

Hezkuntza formalari dagokionez, elkarrizketatuen biografietan, gehienentzat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tartea momentu zail edo esperientzia deserosoz bizitako moduan komentatu izan da. Bullying-a, irainak, ikusezintasuna edo errepresentazio eza, isiltasuna, irakasleen ekintza-eza edota erreferenterik ez izatea edo nora joan ez jakitea izan dira hezkuntza formalean bizitakoak kontatzerakoan aipatutakoak.

"bullying berbala, fisikorik ez da egon. Esango neuke plumofobia". Helduen aldetik "cosasa de niños"(B06)

"Nire sasoieta, holan esangot, pentsetan nauen 'ezala egon' inor be. Bueno bai... batenbat bai, baina ziela pertsona baztertuak... ez pisu bardina taldeko dinamiketan adibidez" (L03)

"Ni institutuan heterosexuala nitzen" (L03)

"Badakitx jendia bakarrik sentitu izan dala" (B02)

"nik, nahiz eta inoiz ez identifikatu bullying moduen, bai jasan izan dot momentu batzuetan eta eztot euki inongo pertsona referenterik laguntza eske juteko..." (B01)

Hezkuntza formalean nerabezaroan bizitako horietariko batzuetan garapen positiboa eman dela ere ikusten dute hainbat elkarrizketatuk eta hezkuntzako talde-etabaidan ere hori izan da komentatu dena. Gehien bat ikusgarritasunean, errepresentazioan eta sentibilizazioan aurrera pausuak eman direla. Beraz, hezkuntza esparruetan egiten diren lanak agerikoak dira eta Bermesex programa ere positiboko baloratu da, baina azpimarratzen da ez direla neurri nahikoa. Bestetik, hezkuntza esparruetatik at dauden beste eremu horietan lan egiteko beharra seinalatzen da, etxea, kalea, etabar.

"Nik ikusten dot, garai horietan ez zala egon erantzun egokia guztia hau zuzentzeko (bullying LGBTIfobikoa. Orain? Orain bai ikusten dot hezkuntza publikoa lanketa bat egiten eta ikuspegia zabaltzen" (G07)

Tamalez, garapenak askotan erreakzioa ekartzen du eta horrela komentatu zen hezkuntzako talde-eztabaidan, *"inboluziño"* (IK13) bat eman dela. Jendartean orokorrean ematen ari den fenomeno bat da eta Bermeo ere horren isla da. Horren adierazgarri da, Institutuan dagoen batxilergoko ikasleek osatutako Hezkidetza Taldeak DBHkoei tailerrak ematerako momentuan, ikasleak eurak ere harrituta geratzen direla ikasle gazteagoen jarrerekin. Aipatzekoa da erreakzioan dauden ikasle horien gehiengoa edo ia denak mutilak direla. Honek, atentzio berezia jartzearen beharra ekartzen du eta positiboki baloratzen diren Bermesex eta Hezkidetza ekimenak berrikusteko aukera dakar, estrategiak birpentsatuz. Ikastetxeen aldetik hainbat dira ikusten dituzten beharrak, hala nola, ikasleen ongizate psikosoziala zaintzeko baliabideak, irakasleen, familien eta komunitatearen formazioa, edota zentroen beharren identifikazio bat.

"Salatzen dala (bullying LGBTIfobikoa) eta penalizatzen dala eta ez dakit norarte jarrera punitibo batzuk balixo dabien ala ez, eta igual heziketa izan biher dala potentiatue" (G08)

Azkenik, ikastetxeekin egindako talde-eztabaidan trans errealitateen inguruan nola hitz-egiten den eta hezkuntzatik nola planteatzen diren ikusita, gai honen inguruko lanketa berezia egitea ezinbestekotzat ikusten da, izan ere, trans errealitateak protokolo aktibatzeekin eta neska edo mutil "sentitzearekin" lotzen da.

Galdetegietatik jasotakoak:

"Hezkuntza eta herri pedagogian inbertsioa. Baita ikusgarritasunean ere."

"Edukazinue (etxien) eta Ikastetxeetan informazino gehiago."

“Bermeoko formakuntza zentroetan txikitatik gai hau jorratu beharko lukete, etorkizuneko belaunaldien mesederako.”

“Oro har biztanleriak formazioa jaso beharko luke gai horien (LGBTI+ kolektiboa, feminismoa, antiarrazismoa...) inguruan dauden arazoez kontzientzia hartzeko. Esate baterako, kolektibokoak diren edo bestelako zapalkuntzek zeharkatzen dituzten pertsonen emandako hitzaldiak, tailerrak, dokumentalak... Ahotsa entzun eta ikusgarritasuna ematea, aldi berean gainerakoak gai horretan hezteko.”

Neurri posibleak:

21. Trans errealitateen gaia landu eskolan, guraso eta irakasleentzako formazio saioen bidez.
22. Guraso eskolan sexu-aniztasuna lantzea.
23. Ikastetxeetan aurrera eramaten den Hezkidetza programa eta Bermesex programaren birplanteatzea. Berdintasun, Gazteria eta Gizarte Ongizate sailen koordinaziotik bultzatuz, ikastetxeetako Hezkidetza eta Elkarbizitza batzordeak batuz eta kultura errestituatiboaren begiradatik lan eginez.
24. Belaunaldi berriek beren herrian LGBTI+ erreferente positiboak badaudela ezagutzeko materiala sortu eta zabaltzea.
25. LGBTI+ ikuspegia duten bullying LGBTI+fobikoaren kontrako prebentziozko programak txertatzea.

OSASUNA

Kasu honetan, osasuna aztertzerakoan, ezinbestekoa zaigu ikuspegi intersektional eta sistemiko batetik abiatzea. Honekin esan nahi duguna da, ez direla

soilik zerbitzu puntualetan ematen diren tratuan kontuan hartu behar, baizik eta norberaren gorputza, identitatea eta harremanak nola jasotzen diren ere sistematikoki. LGBTI+ pertsonen osasun sistemarekin duten edo dituzten harremanak ez dira inondik inora neutroak; sinismen sistemak, botere-harremanak, aurretiazko esperientziak, etabar askok zeharkatzen dituzte eta honek mesfidantza eta beldurra sortzen ditu. Eta guzti honek desberdintasunak sortzen ditu osasun arretaren kalitatean eta eskuragarritasunean.

Honi lotuta, hainbat osasun erakundek —Munduko Osasun Erakundea esaterako—, depresioa, antsietatea eta substantzien abusua LGBTI+ pertsonetan 1,5 puntu handiagoak direla aipatzen dute, batez ere emakume lesbianen, bisexualen eta transexualen artean. Euskal Herrian ere, egindako ikerketa berriek *“Emakunde. (2023). Emakume Lesbianen eta Bisexualen Osasunari buruzko Txostena”* edo *“Ararteko. (2019). Sexu-orientazioagatik eta genero-identitateagatik izandako diskriminazioaren inguruko txostena”*, azpimarratzen dute osasun sistema, askotan ez dela prest egon identitate disidenteentz hainbat behar espezifikoak erantzuteko eta honek areagotu egin duela dagoen arrakala, ondorioz mesfidantza, arretan atzerapenak eta arreta ez espezifikoak jasotzeko arriskua handitu du.

Testuinguru honen baitan, Sumin trans kolektiboak adibidez, beste eragile batzuekin batera, osasun sisteman trans pertsonen patologizazioa egun presente dagoela adierazi dute. Hau da, askotan protokoloak eguneratu gabe daudela, teoria batzuk direla baina profesionalaren arabera hau aldatu egiten dela eta identitatearen inguruko ukazioak eta susmoak egon izan direla. Zer esanik ez, ez bitartasunean bizi direnentzat.

Honetaz gain, osasun arloko profesionalen artean jakinmina eta aldaketak ematen direla nabaria dela esan beharra dago, baina honek ez du kentzen, etengabeko eraldaketan bizi garen heinean, etengabeko formakuntza eskaini eta jaso behar dela, oraindik ere honen falta handia dagoela sumatzen delako.

Nola hautematen da osasuna Bermeon?

Diagnostiko honetan parte-hartu duten bermeotarrei galdetuta, orokorrean ez dute indarkeriazko bizipen oso bortitzik bizi izan. Dena dela, heterosexualitatearen presuntzioa oso presente dagoela aipatu izan dute. Hau da, medikuaren aldetik, kontsultara doazenak heterosexualak direla aurruposatzea.

“niri hori familia medikuaz bebai, 18 urtetara heltzen zareniko bebai, galdetegi bat eitzen dotsue... ‘harreman sexualak’: bai. Eta ‘protekziñuekaz’: ez... ta.... andrakin.... a... bueno... (deserosotasuna)” (L03)

Heterosexualitatearen presuntzioaz gain, pentsamendu heterozuzenaren baitan kokatu dezakegun praktika sexualak ulertzeko modua (koitozentrista) ere agertu da, sexualitatea bizitzeko askotariko moduak baztertuz.

“esaten baozun sexualki aktibua zarela, ba ya penetraziño bat egotie. Sexualidadia bizitxeko modu asko daz” (B02)

Oro har, elkarrizketatuek aurretik aipatutako inbisibilizazio eta aurruposatzeaz gain, ez dute bestelako egoera biolentorik bizi izan. Hori bai, osasun zentroa eta instituzioa bera espazio ez-seguru bezala bizi dute, batez ere, queer, trans eta ez-bitartasunean bizi diren pertsonak.

“tengo muchisimo miedo del dia que tenga que ir” (BQ05).

Honen haritik, elkarrizketatutako beste batzuek osasun zentroak oro har, jendarteaz baztertuta dauden pertsonentzat eta bereziki arrazializatu,

neurodibergente edo LGBTI+ pertsonentzat espazioak ez-seguru bezala identifikatzen dituzte.

“ez direz babesleku, izan biharko zien moduen” (B02)

Amaitzeko, lehen aipatu duguna ere antzematen da Bermeon eta osasun arloko profesionalen artean jakin-mina eta aldaketak ematen direla presente dagoen arren (talde elkarrizketa batean, Galdakaon martxan daudela aipatu da, protokolo edota gai zehatz baten inguruko saioak egiten omen dituzte hilabetero), formakuntza eta prestakuntza falta seinalatzen da.

“bai botaten dot faltan sentsibilizaziñue edo...hori eukitzie” (B01)

“Dauzen profesioanalak jakin behar dauela zelan eraman kasu bakoitza” (P11)

Neurri posibleak:

26. Sexu-transmisiozko infekzioen inguruko estigma lantzea.

27. Sexu-harreman seguruak izateko doako materiala banatzea liburutegietan, osasun-zentroetan, tabernetan, gimnasioetan edo udaletxean, besteak beste.

28. Osasun-zentroko itxarongeletan ikusgarritasunerako udal-kanpainak ezartzea, sexu- eta genero-aniztasunaren gaineko estigma hautsi eta pertsona horiei ikusgarritasuna ematen laguntzeko.

29. Udalak sustatuko lukeen doako aholkularitza psikologikoa sortzea edota Bermesex horretarako erabiltzea.

PARTE-HARTZE POLITIKOA

Herritarrek udalarekin duten harremana eta parte-hartze politikoa herri baten bizitza demokratikoaren adierazgarri nagusietako bat da. Parte-hartzeak aukera ematen du erabaki publikoetan ahotsa izateko, eskubideen defentsan aktibo izateko

eta instituzioen funtzionamenduan konfiantza garatzeko. Hala ere, herritar guztiek ez dute aukera bera sentitzen udalarekin harremanetan jartzeko edo euren beharrak eta aldarrikapenak modu askean adierazteko.

LGBTI+ pertsonen kasuan, parte-hartze politikoa eta instituzionala askotan mugatuta egoten da ikusezintasunarengatik, beldurrarengatik edo lehentasunezko gai modura ez agertzearen ondorioz. Horregatik, funtsezkoa da udalaren jarrerak eta politikek kolektiboaren presentzia eta ekarpenak aitortzea eta bultzatzea, parte-hartze aktiboa sustatzeko eta aniztasuna balio demokratiko gisa txertatzeko.

Nola hautematen da udalarekin harremana eta parte-hartze politikoa

Bermeon?

Orokorrean elkarriketatuek udalarekin daukaten harremanean ez dute arazorik ikusi. Orokorrean egungo udal gobernuan konfiantza agertu eta diagnostiko hau egitea positiboki baloratu dute. Dena dela, egindako elkarriketa eta talde-eztabaidetatik hobetzeko hainbat kontu agertu dira. Esaterako, udaleko inprimakiak begirada bitarretik at berrikusteko beharra ikusi da eta baita sexu aniztasunaren inguruan udaleko langileak formatzea ere.

Horrez gain, Bermesex zerbitzua positiboki baloratzen bada ere, LGBTI+ herritarrentzat erreferentzi toki bat izateko potentzialitatea baloratu eta zerbitzua sexu aniztasunaren begirada ez-bitarretik berrikusiz, herritarrei gehiago zabaltzeko beharra ikusi da.

Parte-hartze politikoari dagokionez, elkarriketa gehienetan LGBTI komunitatearentzat espazio baten beharra nabaritu da. Espazio hori, espazio fisiko moduan ulertu daiteke, baita komunitatearen saretze edo artikulatze bat edota udalarekin koordinatzeko nahi bat. Dena den, artikulatze honetan inizatiba nork

hartu dago jokoan. Izan ere, ez dago argi nork beharko lukeen lehenengo harria bota herrian LGBTI+ gaien inguruko gauzak antolatzeko. Udalak ala herritarrak?

“Baina guk egin behar ditugu gauzak ala udalak? Udalak bultzatu behar dau edo guk bultzatu behar dugu?” (G07)

Behin Udalak diagnostiko hau egitearen ardura hartuta, agian egokia izan daiteke LGBTI+ komunitatearen nolabaiteko saretze edota artikulaziorako baliabideak eskaintzea izan daiteke udalak ardura hartzea.

Azkenik, aipatzekoa da Bermeon dauden elkarte ezberdinen kantitatea kontutan izanda, elkartegintza indartsu baten adierazle izan daitekeela. Hau horrela izanda ere, diagnostiko honetara guztiak gonbidatuak izan badira ere, gutxiengo bat animatu dela parte-hartzera. Atentzio berezia deitu digu esaterako mugimendu feministarekin talde elkarrizketa lotzeko zailtasunak, azkenean soilik pertsona bakar bat agertu izana eta gaiarekiko agertutako lotura ahulak. Honen kontura, bestelako eragileekin egindako talde elkarrizketetan, momentu honetan mugimendu feminista nahiko ahul dagoela ere adierazi da. Honek, eragileek orokorrean LGBTI+ gaiekin loturarik ez daukatela pentsatzera eramán gaitzake eta honen aurrean, arestian aipatu bezala, udaletik elkartegintzarako eta herrira begira sentsibilizazio eta formazio ekintzak eskaintzea izan daiteke aukera bat.

Neurri posibleak:

30. LGBTI+ memoriari buruzko lanketak egitea eta hauek sozializatzea. Adibidez, Bermeoko LGBTI+ genealogia.

31. Herriko LGBTI+ komunitatearekin kontsultarako eta aholkularitzarako balizko LGBTI+ mahai baten sorreraren inguruan prozesua abiatzea.

LGBTI+ POLITIKA PUBLIKOAK GARATZEKO EKINTZA POSIBLEAK

ESPAZIO

PUBLIKOA: *Espazio publikoa, seguru baina ez guztiz askatasunez bizitzeko leku*

LGBTI+fobia zer den ohartarazi eta jakinaraziko duen kanpaina instituzional bat egitea; besteak beste, ongi etorriak ez diren jarrerak ikusaraziko ditu. Kanpaina aurrera eramateko, kontuan izango da LGBTI+ herritarren iritzia, eta haien kolaborazioa sustatuko da.

LGBTI+ protokoloa eratzea. Eskuragarri egongo da eraikin publikoetan, komertzioetan, tabernetan, aisialdi guneetan eta halako tokietan.

Herriko idiosinkrasiak bultzatzen dituen indarkeriazko dinamikak identifikatu eta lantzea.

LGBTI+ protokoloari lotuta, formazio eta sentsibilizazio saioak eskaintzea herriko eragileei: elkarteak, tabernak, komertzioak...

LGBTI+ herritarrei ongietorria ematen dieten kartelak edota pegatinak herriko komertzioetan jartzea.

Herri hezitzailearen ideiatik, nerabe eta gazteekin sexu-genero aniztasuna lantzea.

Harrotasun eguna ospatzea; aldeztu aurretik, herritarrek parte hartzeko komunikazio kanpaina diseinatzea.

Egun berezietan banderak jartzea udaletxeko balkoian.

Herritar berrientzako harrera protokoloa diseinatzean, LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.

Sexu-aniztasunaren eta genero-identitatearen inguruko derrigorrezko prestakuntza espezifikoa herriko langile publiko guztientzat.

LGBTI+ pertsonak artatzeko derrigorrezkoa eta denboran egonkorra izango den barne-protokoloa eratzea, polizia-etxean bertan edota kaleko esku-hartzeetan erabiltzeko.

Hirigintzari loturiko ekintza zehatzak burutzea, leku ez seguru gisa identifikatu diren tokietan arrisku hauek gutxitu edo desagerraraziko dituztenak.

AISIALDIA: <i>Aisialdia atsegina bada ere, ez da beti askatasunez bizitzeko modukoa</i>	Festetan ikusgaitasunarekin lotutako kanpaina espezifikoko abiatzea.
	LGBTI+ pertsonentzako puntu koloredunak ezartzea festa garaietan, puntu moreek bezala funtzionatzen dutenak.
	Bermeoko aisialdia antolatzean LGBTI+ komunitatea kontuan izatea.
	Zinema ziklo LGBTI+ bat antolatzen jarraitzea (Zinegoak, adibidez).
	Udal instalazioetako komun eta aldagela ez-bitarrak sortu, egokitu eta sozializatzea.
	Kirol-elkarteetan prestakuntza eskaintzea eta kirolean LGBTIfobiaren aurkako nazioarteko egunean (otsailak 19) kirol-elkarteekin batera kanpaina bat diseinatzea.
	Emakumeen futbol taldea berreskuratzeko ahaleginak egitea futbol elkartearekin batera.
HEZKUNTZA: <i>Eskolan aurrerapenak badaude, baina oraindik ikasle askok ez dute seguru eta aske sentitzen</i>	Gizonentzako despatriarkalizazio prozesuak eskaintzea
	Trans errealitateen gaia landu eskolan, guraso eta irakasleentzako formazio saioen bidez.
	Guraso eskolan sexu-aniztasuna lantzea.
	Ikastetxeetan aurrera eramaten den Hezkidetza programa eta Bermesex programaren birplanteatzea.
	Berdintasun, Gazteria eta Gizarte Ongizate sailen koordinaziotik bultzatuz, ikastetxeetako Hezkidetza eta Elkarbizitza batzordeak batuz eta kultura errestauratiboaren begiradatik lan eginez.
OSASUNA: <i>Osasun zerbitzuetan ez dira tratatu txar larririk bizi izan, baina oraindik askok ez dute beren burua ongi ulertua edo errespetatua sentitzen</i>	Belaunaldi berriek beren herrian LGBTI+ erreferente positiboak badaudela ezagutzeko materiala sortu eta zabaltzea.
	LGBTI+ ikuspegia duten bullying LGBTI+fobikoaren kontrako prebentziozko programak txertatzea.
	Sexu-transmisiozko infekzioen inguruko estigma lantzea.
	Sexu-harreman seguruak izateko doako materiala banatzea liburutegietan, osasun-zentroetan, tabernetan, gimnasioetan edo udaletxean, besteak beste.
PARTE-HARTZE POLITIKOA:	Osasun-zentroko itxarongeletan ikusgarritasunerako udal-kanpainak ezartzea, sexu- eta genero-aniztasunaren gaineko estigma hautsi eta pertsona horiei ikusgarritasuna ematen laguntzeko.
	Udalak sustatuko lukeen doako aholkularitza psikologikoa sortzea edota Bermesex horretarako erabiltzea.
	LGBTI+ memoriari buruzko lanketak egitea eta hauek sozializatzea. Adibidez, Bermeoko LGBTI+ genealogia.
PARTE-HARTZE POLITIKOA:	Herriko LGBTI+ komunitatearekin kontsultarako eta aholkularitzarako balizko LGBTI+ mahai baten sorreraren

Udalarekiko konfiantza inguruan prozesua abiatzea.

badago, baina gehiago

egin daiteke LGBTI+

pertsonak gehiago

entzunak eta

ikusgarriagoak izan

daitezen

BIBLIOGRAFIA

- Azpiazu Carballo, J. (2017). *Masculinidades y feminismo*. Virus Editorial.
- Bourdieu, P. (1988). *La distinción: Criterio y bases sociales del gusto* (I. G. de Rivera, Trans.). Taurus. (La originala 1979an argitaratua)
- Butler, J. (1990). *Gender Trouble: Feminism and the Subversion of Identity*. Routledge.
- Coll-Planas, G. (2010). *La voluntad y el deseo: La construcción social del género y la sexualidad*. Egales.
- Coll- Planas, G. (2015): Diversidad sexual e identidad de género, *Revista GALDE* 10
- Duggan, L. (2002). *The New Homonormativity: The Sexual Politics of Neoliberalism*. In R. Castronovo & D. D. Nelson (Eds.), *Materializing Democracy: Toward a Revitalized Cultural Politics* (pp. 175–194). Duke University Press.
- Foucault, M. (1976). *La voluntad de saber*. Siglo XXI.
- Hiruki Larroxa. (2021). *Noiz bukatzen da armairua?* Hernaniko Udala.
- La Fountain-Stokes, L. (2005). *Queer Ricans: Cultures and sexualities in the diaspora*. University of Minnesota Press.
- Martínez, D. (2011). «Sexilios»: *hacia una nueva poética de la erótica caribeña*. América Latina Hoy, 58, 15-30.
- Platero, R. L. (2014). *Transexualidades: Acompañamientos, factores de salud y recursos educativos*. Bellaterra.
- Pujal, M., eta Amigot, P. (2010). *Género y subjetividad: Una mirada psicosocial*. Universitat Oberta de Catalunya.
- Rich, A. (1980). Heterosexualidad obligatoria y existencia lesbiana. *DUODA Revista d'Estudis Feministes* núm 10-1996.
- Wittig, M. (2017). *Pentsamendu heterozuzena*. Lisipe, Susa.
- Zúñiga Rodríguez, M. (2020). *Sexilio: Migraciones forzadas por orientación sexual e identidad de género*. [Master amaierako tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. EHUKo Gordailua. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/47261/Zu%C3%B1iga_Rodriguez_TFM.pdf?sequence=1&isAllowed=y